

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ITURRIETAKO PARTZUERGOA

#### Behin betiko onestea 2019ko ekitaldirako aurrekontu orokorra

Ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu Iturrietako Partzuergoaren 2019ko aurrekontu orokorrari hasierako onespena ematen dion erabakiaren aurka. Hori dela eta, aurrekontu hori behin betiko onesten da, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuen 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan, eta Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legeak 150. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. Hona hemen aurrekontua, kapituluka xehatuta:

#### GASTUEN EGOERA

KAPITULUAK	ZENBATEKOA
I. Langile gastuak	19.310,00 euro
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	19.246,00 euro
III. Finantza gastuak	50,00 euro
IV. Transferentzia arruntak	49.047,00 euro
VI. Inbertsio errealak	97.002,00 euro
VII. Kapital transferentziak	3,00 euro
VIII. Finantza-aktiboak	0,00 euro
IX. Finantza-pasiboak	0,00 euro
<b>Gastuen egoera guztira</b>	<b>184.658,00 euro</b>

#### DIRU SARREREN EGOERA

KAPITULUAK	ZENBATEKOA
I. Zuzeneko zergak	3.347,56 euro
II. Zeharkako zergak	0,00 euro
III. Tasak eta bestelako sarrerak	4.903,00 euro
IV. Transferentzia arruntak	12.500,00 euro
V. Ondare bidezko diru sarrerak	66.987,95 euro
VI. Inbertsio errealak besterentzea	0,00 euro
VII. Kapital transferentziak	96.919,49 euro
VIII. Finantza-aktiboak	0,00 euro
<b>Diru sarrerak, guztira</b>	<b>184.658,00 euro</b>

Iturrietako Partzuergoaren 2019ko aurrekontu orokorra behin betiko onesten duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera. Dena den, aipatutako erabakiaren aurka berraztertze errekurtsua aurkeztu

ahalko zaio, nahi izanez gero, Iturrietako Partzuergoaren Batzarrari aurreko idatz zatian adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu baino lehen. Horretarako, hilabete izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Agurain, 2019ko maiatzaren 2a

*Lehendakaria*

*FRANCISCO ALDA SAGASTI*